# DEBAGOIENA: ERRETIRATU BOLUNTARIOEN ELKARTEA BULTZATU GURA DUTE IBARREAN /4


# Goienka

EGUBAKOITZA • 2003ko otsailaren 14a • IV. urtea • 98. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**




**Goienka2a**
'Skinhead' kultura, gero eta hedatuago Debagoienean

**CARLOS VAREA** / IRAKASLEA
*"Gerraren ondorioz Irak ahulduz, gehien irabaziko duena Israel izango da"* /7

**KULTURA**
Jokin Zaitegiren 'Euzko-Gogoa' aldizkaria Interneten dago /15

## Sahararrendako ia 14.000 kilo janari batu dituzte Debagoienean

Errefuxiatu sahararrendako ia 14.000 kilo janari batu dituzte Debagoienean. Horrez gainera, ibarreko udalek 26.104 euro emango dituzte. Batutako guztia kaxetan sartu, eta Usurbilera eroan dute oraingo astean. Horrela, Gipuzkoa osoan batutako janarien karabana zapatuan irtengo da Tindouf-erantz (Aljeria). Fronte Polisarioko ordezkariek Gipuzkoan atsegin handiz hartu dute jasotako laguntza. Izan ere, Gipuzkoan 51 udalek hartu dute parte kanpainan, eta Gipuzkoan 100.000 kilo janari batu dituzte. Horrez gain, 80.000 euro inguru, kamioiak erosi eta janariak garraiatzeko. /4

ASTEKO GAIA: HORRELA DAUDE ALDERDIAK, HAUTESKUNDEEN AURRETIK/3

# Alderdi politikoak, maiatzera begira

Maiatzaren 25eko udal hauteskundeak direla-eta, dagoeneko barne antolakuntza lanetan dihardute ordezkari politikoek. Hauteskunde aurreko epea hainbat faktorek baldintzatzen dute: EAJ-ren eta EAren koalizioak eta, batez ere, ezker abertzalearen legez kanporatzeak. Bestalde, Aralar ere izango da hauteskundeetan. Kontuan hartu behar da, era berean, sozialistek eta popularrek dituzten zailtasunak zerrendak osatzeko, mehatxupean bizi dira-eta.

> ■ *Ibarreko ordezkari gehienak isilpean ari dira lanean oraingoz*

ARRASATE

### Herriko errepideak konpontzeko eskatu diote Diputazioari

Arrasatear ugarik salaketak aurkeztu dituzte udaletxean. Kontua da herriko zenbait errepide txarto daudela, zulo handiak daudelako. Horren ondorioz, batek baino gehiagok kalteak izan ditu ibilgailuan. Eta, hala, hainbat lagun kexatu egin dira. Batez ere, GI-2620 errepidean daude arazoak, Garagartzara doan errepidean. Errepide hori konpontzea Diputazioari dagokio. /6

ESKORIATZA

### Datorren astean inauguratuko dute liburutegi berria

Hurrengo egubakoitzean, hilaren 21ean, inauguratuko dute Eskoriatzako liburutegi berria. 18:30ean hasiko da ekitaldia, eta eskoriatzar guztiek izango dute liburutegia ikusteko aukera. Datozen egunotan, bestalde, hainbat ekintza izango dira; tartean, txotxongilo emanaldia eta Alberto Iñurrategiren hitzaldia. Liburutegi berria Luis Ezeiza Eskolako eraikinean dago. /6




OXEL EROSTARBE

## Kirolean ere, euskarari lekua egiten

Debarroko euskara eta kirol zerbitzuek aurten argitaratu dituzten fitxa didaktikoak aurkeztu zituzten martitzenean. Natura ekintzen fitxak Damaso Gallastegik egin ditu, oinarrizko soin hezkuntzako fitxak Alazne Mutiloak eta xakearen gaineko fitxak, Asier Sarasuak. Ekitaldi berean, euskarazko fitxak egiteko aurten emango diren beken berri ere eman zuten. Yoga, erlaxazioa eta kirol alternatiboa izan behar dute hizpide fitxek, eta otsailaren 25a aurretik aurkeztu behar dira. /11


SPORTLAND FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA
www.forumsport.com Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Gazte ikastaroak Arrasaten



## Alboka

Martxoaren 1etik San Juanak arte
Zapatu goizetan. Hiru txanda: 10:00-11:00, 11:00-12:00 eta 12:00-13:00.
Arrasate Musikalen
Matrikula: 18 € / 12 € ikasle eta langabeak

## Euskal dantzak

Martxoaren 7tik San Juanak arte
Egubakoitzetan, 19:00-20:30
Lore Gazteak elkartearen lokalean
Matrikula: 9 €



## Txalaparta

Otsailaren 28tik ekainaren 7ra
Egubakoitz arratsaldeetan (20:00-22:00) eta zapatu goizetan (11:00-13:00)
Musakolako gazte txokoan
Matrikula: 18 € / 12 € ikasle eta langabeak

## Sabel dantza

Hastapen eta sakontze mailak
Maiatzaren 10etik ekainaren 14ra
Zapatu goizetan
Musakolako kiroldegian
Matrikula: 30 € / 15 € ikasle eta langabeak





## Perkusioa

Umeendako lantegia: otsailetik martxora
Sanba eta afro-kubatar erritmoak: martxotik maiatzera
Rock fusioa: maiatzetik ekainera

## Zeramika

Ekainera arte
Zapatu goizetan




## Argazkigintza eta clown:

galdetu zein egunetan diren

**Informazioa eta izenematea: Gazte Bulegoan 943 77 00 65**

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazte saila

# Hauteskundeak honela datoz

## Maiatzeko hitzorduari begira antolatzen ari dira alderdiak

LEIRE KORTABARRIA

Hiru hilabetetik gora falta da hurrengo udal eta foru hauteskundeetarako, baina Euskal Herrian, eta Debagoiena ez da salbuespena, hasi gara honezkero hauteskunde giroa sumatzen. Eta ez alderdiak agerpen eta ekintza publikoak egiten hasiak direlako; baizik eta esparru politikoan gertatu den eta gertatzen ari denagatik.

EAJ eta EA alderdien arteko koalizioa, tirabira askoren ondoren lotutakoa; ezker abertzalearen legez kanpoko egoera; elkarte berrien aurkezpena; edo hainbat alderdiren isiltasuna. Horiek guztiek iluntasunean murgiltzen dute hauteskunde aurreko epea.

**EZKER ABERTZALEA**

Alderdi abertzaleen artean aldaketak izan dira. Hauteskundeotarako antolaketa gehien baldintzatzen duena Batasuna alderdiaren legez kanporatzea da. Eta horrek eragin handia du Debagoienean, kontuan hartuta ibarreko bederatzi udaletik lauk dutela Batasuneko alkatea –Arrasatek, Aretxabaletak, Eskoriatzak eta Antzuolak– eta besteetan ere ordezkaritza maila altua dutela. Legez kanporatzearekin batera, Batasunak alderdi bezala hauteskundeetara aurkezteko edo edozein ekintza egiteko eskubidea galdu du.

Hori dela eta, Batasunatik datorren ezker abertzaleak berrantolatzea erabaki du. Hori bai, neurri handi baten, behintzat, isilpean ari dira. "Udal hauteskundeotara aurkeztuko garela argi daukagu. Hori da gure konpromisoa. Nola edo hala, aurkeztu egingo gara. Orain, lanean gabiltza buru-belarri, aurkezteko formulak aurkitzeko", diote ibarreko lehengo Batasuneko kideek.

Oraingoz, herri plataformak aurkezten ari dira. Bergaran, '...ta segi aurrera'; Arrasaten, 'Herri anitza, herrian hitza'; Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan zapatuan aurkeztuko dituzte eta Antzuolan 22an. "Ezkertiar, abertzale eta autodeterminazioaren aldeko herritarrak gurekin bat egitera gonbidatuta daude", diote arduradunek.

Bestalde, ezker abertzalearen magalean sortutako Aralar mugimendua lehen aldiz aurkeztuko da hauteskundeetara. Alderdiak esan digunez, "Arrasaten, Bergaran, Elgetan eta Antzuolan, behintzat, aurkeztu nahiko genuke, eta zein aukera dugun begiratzen ari gara. Zerrendako kideen hautaketa prozesuan gaude". Baliteke Zutik taldearekin koalizioan aurkeztea Aralar.

**EAJ ETA EA**

Gainerako alderdi abertzaleek ere badute nahiko lan datozen hilabeteotan. EAJ eta EArendako, koalizioa ez da gauza berria: 1999ko udal hauteskundeetan ere formula hori aukeratu zuten. Geurean lau udal irabazi zituen koalizioak, eta gainerakoetan ere emaitza onak lortu zituen. Une honetan, ibarreko EAJ eta EAko ordezkariak negoziaziotan ari dira, zerrendak antolatzeko. GOIENKARIAk kontsultatutako ordezkari guztiek diote oraindik "goizegi" dela zerrendaburuak nortzuk izango diren esateko. Edozelan ere, berritasunik izango da: esate baterako, Oñatiko Anjel Iturbe alkatea ez da berriro aurkeztuko.

Antzuolan, 99an ez bezala, elkarrekin aurkeztuko dira biak; orduan, hiru eserleku lortu zituen EAJk, eta bat EAk. Aramaion ere gauza bera gertatuko da; EAJk lau zinegotzi ditu eta EAk, hiru. Eskoriatzan ere batera aurkeztuko diren arren, EAkoa izango da alkategaia.

Bestalde, Arrasatekoa kasu berezia da: 99an EAJ eta EA elkarrekin aurkeztu ziren arren, hauteskundeen ondoren, banandu egin ziren eta nork bere taldea osatu zuen. Kasu hori gerta badaiteke ere, EAJ eta EAko buruzagiek lortutako akordioak ateak ixten dizkio alderdi bakoitza nor bere aldetik aurkezteari.

**ALDERDI SOZIALISTA ETA POPULARRA**

Joan ziren hauteskundeetan hirugarren gelditu zen alderdia alderdi sozialista izan zen. Arrasaten lau zinegotzi ditu; Antzuolan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, bana. Alderdi horrek GOIENKARIAri esandakoaren arabera, lanean ari da zerrendak antolatzeko, baina uko egin dio azalpen gehiago emateari.

Bestalde, alderdi popularrak zinegotzi bi ditu Arrasaten, eta bana Oñatin eta Aretxabaletan. Eta honakoa adierazi du: "Bertako zerrendagaiak aurkitzea oso-oso zaila da guretako Debagoienean. Baina herri guztietan izan ditugu botoak, eta boto emaile horiekin konpromisoa dugu. Hortaz, Debagoieneko herri guztietan aurkeztuko gara".

**EZKER BATUA**

Ezker Batuak, oraingoz, zinegotzi bi ditu Debagoienean: Arrasaten eta Eskoriatzan bana.

Alderdi horrek aurreratu du Joseba Ugalde, gaur egun zinegotzia dena, izango dela zerrendaburu Arrasaten. Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan ere izango ditu hautagaiak Ezker Batuak. Oñatin, lehenengoz, bertako hautagaia izango du: Karmelo Pérez izango da.



GOIENKARIA

**1999ko hauteskundeetan, 37.136 debagoiendarrek eman zuten botoa; hautesleen %69,4k.**

KONTSEILUA

### Hautagai euskaldunen aldeko apustua

**Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak, euskararen normalizazioaren aldeko taldeak, udal hauteskundeetako hautagaiak euskal hiztunak izan daitezela eskatu die alderdiei. "Maiatzetik aurrera, gure udalak eta foru erakundeak zuzenduko dituzten pertsonak euskal hiztunak izatea lagungarria da euskararen garapenerako", esan du.**

ZINEGOTZI KOPURUA

### 109 zinegotzi aukeratuko ditugu Debagoienean

**Debagoieneko herri guztietan, baten izan ezik –Leintz Gatzagan–, 1999ko zinegotzi kopuru berbera aukeratuko dugu aurten: 21, Arrasaten; 17na, Bergaran eta Oñatin; 13, Aretxabaletan; 11, Eskoriatzan; bederatzina Aramaion eta Antzuolan; eta zazpi, Elgetan. Gatzagak ere zazpi zinegotzi zituen, baina populazioa jaitsi denez, orain bost izango dira.**

ALKATEAK

### Gehienek ez dute erabaki berriro aurkeztuko diren

**Oñatiko Anjel Iturbe eta Leintz Gatzagako Joxerra Agirreurreta alkateek kargua utziko dutela adierazi dute. Oraingoz, ez dago jakiterik ezker abertzaleko alkateek zer egingo duten. Gainerako alkateek –Victoriano Gallastegi (Bergara), Iñaki Nafarrate (Aramaio) eta Patxi Basauri (Elgeta)– ez eta euren taldeak ere, EAJk, ez dute oraindik erabaki.**




AINTZANE IRIZAR
Antzuolan 635 kilo janari batu dituzte, eta Anelkar gobernuz kanpoko erakundeko kideak ibili dira janaria kaxetan sartzen.

# Sahararrendako ia 14.000 kilo janari batu dituzte Debagoienean

*Fronte Polisarioko ordezkariek herritarren erantzuna eskertu dute*

ENEKO AZKARATE

**Errefuxiatu sahararrendako ia 14.000 kilo janari batu dituzte Debagoienean. Horrez gainera, ibarreko udalek 26.104 euro emango dituzte. Batutako guztia kaxetan sartu, eta Usurbilera eroan dute oraingo astean. Horrela, Gipuzkoa osoan batutako janarien karabana zapatuan irtengo da Tindouf-erantz (Aljeria).**

Salem Embarek-ek –Fronte Polisarioko ordezkaria Gipuzkoan– pozez zoratzen eta harrituta eman dizkigu errefuxiatu sahararrendako Gipuzkoa osoan batutako janarien gaineko datuak: "Sekulako erantzuna jaso dugu gipuzkoarren aldetik. 51 udalek hartu dute parte kanpainan eta 100 tona janari, hau da, 100.000 kilo, batu ditugu. Horrez gain, 80.000 euro inguru, kamioiak erosi eta janariak garraiatzeko erabiliko ditugunak. Eskerrak eman nahi dizkiegu gipuzkoar guztiei erakutsi diguten elkartasunagatik".

Bi trailer eta beste kamioi bi erosi dituzte janari guztia Aljeriako basamorturaino garraiatzeko. Hain zuzen, zapatuan irtengo da karabana.

**UDALEK 26.104 EURO EMAN DITUZTE**
Debagoieneko datuei dagokienez, Arrasaten 6.031 kilo janari batu dituzte; Bergaran, 5.000; Oñatin, 1.394; Eskoriatzan, 700; Antzuolan, 635, eta Elgetan, 187,5. Hau da, guztira, 13.947,5 kilo. Lekaleak, zerealak, pasta, arroza, irina, azukrea, olioa, atun eta sardina latak... Horrelako jakiak batu dituzte. Udalek eman duten dirulaguntza, ostera, honako hau izan da: Arrasateko Udalak, 3.000 euro; Bergarakoak, 1.500; Oñatikoak, 18.000; Antzuolakoak, 600, eta Elgetakoak, 150. Horri gehitu behar zaio herritarrek jarri dutena eta hainbat elkarte, ikastetxe, gaztetxe eta gobernuz kanpoko erakundek batutakoa.

Batutako janari eta diruari esker, hainbat herrialdek bete ez dituzten konpromisoei aurre egin ahal izango diete sahararrek.

# Erretiratu boluntarioen elkartea bultzatu gura dute

*Nagusilan elkartea eguaztenean aurkeztuko dute*

ENEKO AZKARATE

**Nagusilan erretiratu boluntarioen elkartea aurkeztuko dute datorren eguaztenean Arrasaten. Bakarrik dauden zaharrei laguntzeko elkartea da Nagusilan. Aurkezpen ekitaldirako gonbidapena Debagoieneko erretiratu guztiei egin diete Nagusilan elkartekoek.**

Aurkezpena Saiolango eraikinean –lehengo Cerrajera– egingo dute, hain zuzen, Hirugarren Adinekoen Institutu Komunitarioak (ICTE) duen bulegoan, 16:00etan.

Etxean edo hirugarren adinekoendako egoitzetan bakardadean bizi diren zaharrei laguntzea helburu duen erretiratu boluntarioz osatutako elkartea da Nagusilan.

Egun, 600 boluntario dabiltza elkartean; hain justu, Gipuzkoako 13 herritan eta Araba eta Bizkaiko beste batzuetan. Bakarrik dauden zaharrei bisitak egin, eurekin egon… Horrelakoak egiten dituzte. Izan ere, horixe da, hain justu, Nagusilan elkartearen helburua. Eta, horrekin batera, baita erretiratuei gizartearekiko positiboak jarrerak estimulatzea ere. Zaharrek gizarteari eskain diezaioketena nabarmendu gura dute, aisialdirako denbora luzea dutelako, urtetako esperientziagatik, laguntzeko gaitasuna dutelako…

Gure ibarrean, Tomas Atxak bultzatu gura du Nagusilan. Horretarako antolatu du datorren asteko aurkezpena. Hantxe izango da Nagusilan elkarteko buru Juan Mari Garitano.

**HAINBAT EKIMEN**
Nagusilan elkarteko boluntarioen eginkizun konkretuei dagokienez, honakoak aipa daitezke: etxean edo egoitzetan bakarrik dauden zaharrekin egon, medikuarengana lagundu, egoitzetan hitzaldi eta mahai-inguruak antolatu, espetxean daudenei bistak egin, zaharren alfabetatzea, depresioa jasaten duten zaharrei laguntza eta terapiak eskaini, ludopatei terapiak eskaini, harreman integratzaileak bultzatu…

# 'Prestige': dirua emango dute Fagorreko langileek

*Ordubeteko lanaren soldata emango dute*

OXEL EROSTARBE

Fagor taldeko kontseilu sozialak erabaki du *Prestige* petrolontziaren hondamendiaren ondorioz kaltetutakoei laguntza ematea. Euren proposamena da Fagorreko langile eta bazkide bakoitzak ordubeteko lanaren soldata ematea. Langile eta bazkide guztiek proposamenari baiezkoa ematen badiote, 12.000 euro inguru batuko dituztela esan dute. Kontseilu sozialak langile eta bazkideen artean batzen den diru kopuru bera ematea eskatuko dio Kontseilu Orokorrari.

Edozelan ere, zehaztu barik dago dirulaguntza Galiziara, Kantabriara, Asturiasera edo euskal kostara bidaliko duten. Fagorreko langileen asmoa 36.000 euro inguru batzea da, antzerako kanpaina egin zuten azkenaldian batu zuten dirulaguntza sei milioi pezetakoa izan zen-eta.




• Atsedenean espezialistak
• Koltxoiak, kanapeak...
• Estalki, edredoi nordikoak...
• Ohe artikulatuak.

%20-30
MERKEALDIAK
Kalitate osoarekin

Atsedena hartzeko sistemarik hoberenak
beds®
KOLTXOI DENDAK



ZARUGALDE 25 • ARRASATE • Tel: 943 77 18 35

## BAILARANLABUR

### Hilaren 20tik aurrera, Euskal Herrian ikasle gehien dituen ikastola izango da Arizmendi

Urte eta erdi batera lan egin ostean, otsailaren 20an, Arizmendi Ikastolan bat egingo dute Arrasateko San Viator, San Frantzisko Xabier eta Haur Hezkuntza ikastolek eta Eskoriatzako Almen ikastolak. Lau ikastola horiek desagertu egingo dira eta legez Arizmendi Ikastolak hartuko du haien lekua. Bateratze horrekin, Euskal Herrian ikasle gehien dituen ikastola izango da Arizmendi. Izan ere, 0 eta 21 urte arteko 3.000 ikasle izango ditu Arizmendi Ikastolak.

Aurreko zapatuan, Arizmendiko arduradunek Haur Hezkuntzako proiektu bateratua aurkeztu zuten. /OXEL EROSTARBE

### 'Gernika deialdia' herri plataformak aurkezten dihardute, herriz herri, ibarrean

Joan den asteburuan, Arrasaten eta Bergaran aurkeztu zituzten *Gernikatik Euskal Herrira* plataformak eta oraingo asteburuan, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan aurkeztuko dituzte. Bergaran zapatuan egin zuten aurkezpena, eta *...ta segi aurrera* izena ipini diote plataformari; bestalde, Arrasaten domekan egin zuten aurkezpena, eta *Herri anitza, herrian hitza* izena ipini diote. Bihar, zapatua, aurkeztuko dituztenak: Eskoriatzan, 12:00etan, herriko plazan; Aretxabaletan, 12:30ean, udaletxe aurrean; eta Oñatin, ordu berean, herriko plazan. Eta datorren zapatuan, Antzuolan. /E.A.

### Torturaren aurkako manifestazioa egingo dute, bihar iluntzean, Bergaran

Atzo, eguena, Torturaren Aurkako Eguna zela eta, ekimen ugari izan dira oraingo astean gure ibarrean. Ibarreko ikastetxeetan hainbat ekimen egin zituzten eta iluntzean manifestazioak izan ziren herri gehienetan. Bihar, zapatua, 19:00etan, eskualdeko manifestazioa egingo dute Bergaran. Torturaren Aurkako Taldeak torturarekin bukatzeko bederatzi puntuko proposamena egin du. Horren harira, puntu horien alde daudenen sinadurak batzen hasiko dira. Taldekoen asmoa da urtea amaitu aurretik ekimenarekin bat egingo duten 70.000 sinadura batzea. /O.E.

### 'Prestige' ontziak sortutako hondamenaren gaineko mahai-ingurua izango da Arrasaten

*Prestige* petroliontziaren hondoratzeak ekarri duen hondamenaren gaineko mahai-ingurua izango da datorren eguaztenean, hilaren 19an, Arrasateko udaletxean, 19:00etan. Arrasateko Ekologistak Martxan taldeak antolatu du. Jose Ramon Miguel merkataritzako nabigatzailea izango da hizlari, eta, harekin batera, Donostiako Etxe Galiziarreko boluntario bat. Era berean, boluntario izateko nahitaez bete behar diren fitxak ere eskuragarri egongo dira. Bestalde, *Prestige*-ren inguruan Espainiako gobernuak izan duen jokabidea salatzeko, hilaren 23an Madrilen egingo den manifestaziora joateko antolatu diren autobusen berri ere emango dute. /E.A.

# Pantxoa eta Peioren emanaldia eta pilota jaialdia Korrika kulturalean

*Ekitaldi horiez gain, beste hainbat antolatuko dute ibarrean batzordeek*

ENEKO AZKARATE

**Maulen hasi eta Iruñean amaituko da aurten Korrika 13, apirilaren 4tik 13ra bitartean. Korrikarekin lotutako ekintzak, Korrika kulturalekoak, baina, oraingo domekan hasiko dira, Donostiako Kursaalen egingo den ekitaldiarekin.**



ARTXIBOA
Pantxoa eta Peioren emanaldia otsailaren 29rako iragarri dute Arrasaten.

Ikuskizun horri *Hamalau baietz 1965-1975* izena jarri diote, 60ko eta 70eko hamarkadetako Ez Dok Hamairu taldearen omenez. Izan ere, sasoi hartako kultura ekintzaileei gorazarre egin nahi diete aurten Korrikarekin. Ikuskizun hori, I. Korrika-AEK beka irabazi duen Tentazioa ekoizle etxearen *Metxa* antzezlana eta omenduei lotutako Kultura Hamabostaldia izango dira Korrika Kulturalaren ardatz.

#### MUSIKA ETA PILOTA

Kursaaleko ekintzarekin hasi eta martxoaren amaierara arte, hainbat ekitaldi egingo dituzte Euskal Herri osoan Korrika Kulturalaren barruan: musika emanaldiak, antzezlanak, mahai-inguruak... Euskal Herri mailako egitarauaren barruan, ekitaldietako bi Debagoienean izango dira: hala, otsailaren 29an, Pantxoa eta Peiok kontzertua emango dute Arrasateko Amaia antzokian, 10:30ean; eta martxoaren 23an, ostera, pilota jaialdia antolatu dute AEK-k eta Aspe pilota enpresak. Titinek eta Zezeagak eta Xalak eta Fernando Goñik neurtuko dituzte indarrak, Bergarako Udal Pilotalekuan.

Ekitaldi horiez gain, ordea, tokian tokiko batzordeek bestelako batzuk ere antolatuko dituzte ibarreko herrietan, Korrika Kulturala osatze aldera. Batzordeok datozen egunetan dira eratzekoak, eta laster egingo dituzten batzarretan erabakiko dute ze ekintza egin.

*"Pantxoa eta Peio 29an izango dira Amaia antzokian; pilota jaialdia, martxoan, Bergaran"*

*"Ruper Ordorikak ahotsa ipini dio 'Gero bat gaurdanik' Korrika 13ko kantuari"*

#### 'GERO BAT GAURDANIK'

Bestalde, oraingo astean aurkeztu dituzte Korrika 13ko kantua eta bideoa. *Gero bat gaurdanik* izenburua jarri diote kantuari. Kantuaren musika Bingen Mendizabalek egin du eta hitzak, Igor Elortza bertsolariak. Ahotsa, ostera, Ruper Ordorika oñatiarrak eta Mikel Laboak ipini diote kantuari. Bideoaren gidoia Unai Iturriaga bertsolariak egin du.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ANTZUOLA

## Uzarragako bideari behin-behineko irtenbidea eman dio Diputazioak

Orain dela pare bat aste, bi tokitan apurtu zen Uzarragako errepidea, eta itxita egon da ordutik hona. Badirudi lur mugimenduak izan direla bidea apurtzeko arrazoia.

Astelehenean hasi ziren errepidea konpontzen, eta astea bukatzerako lanak amaituta egotea espero zuten.

Edozelan ere, oraingo konponketa horiek behin-behineko irtenbidea besterik ez da; izan ere, Diputazioko arduradunek errepidearen trazaketa aldatzeko aukera aztertzen dihardute. /A.I.



MONIKA BELASTEGI

BERGARA

## Itxita jarraitzen du Antzuolara aldeko herri irteerak; Bonbulu okindegi zaharra botatzeko lanak esleitu ditu Udalak, baina ez dira datorren astera arte hasiko

Otsailaren 1a ezkero dago itxita; Bonbulu okindegi zaharraren eraikin zatia erori zenetik. Eraikina errepide alboan dago eta hainbat harri errepidera erori ziren. Horregatik, eta ibilgailu ugarik erabiltzen duten errepidea izanik, bidea ixtea erabaki zuen Udalak, segurtasuna bermatzeko. Astelehenean, eraikin hori eta bere parekoa botatzeko baldintzak onartu zituen udalbatzak: eraisketaren kargu egingo da eta trukean eraikinak bere esku geratuko dira. Lanok Mariezkurrena Eraikuntzak egingo ditu; dena dela, noiz botako dituzten erabaki barik zegoen eguen goizean, enpresako iturrien esanetan. Hala ere, datorren astean egingo dutela aurreratu zuten. Asteburuan, behintzat, itxita egongo da; hortaz, ekialdeko saihesbidea erabili beharko dugu. /M.B.

ARETXABALETA

## Interneten ibiltzen ikasteko KZGunea jarriko dute Markolen

*Konekta Zaitez* egitasmoa martxo hasieran helduko da Aretxabaletara. Horretarako, Markole auzoko etxabe bat egokitzen dabil egunotan Udaleko Kultura Saila. Egoitza horretan 12 ordenagailu jarriko dituzte. Zortzi Interneteko trebakuntza ikastaroak egiteko erabiliko dituzte; besteak, aldiz, lasai-lasai Interneten nabigatzen ibiltzeko izango dira. Gainera, KZGunean gura duenari laguntza emateko gertu izango diren begirale bi jarriko dituzte. Hasiera baten, 18 urtetik gorakoendako izango da gunea. /A.L.

ARAMAIO

## Udaletxearen barruko aldea berrituko dute aurten

Egokitzapen lanak egingo dituzte udaletxearen barruko aldean. Hasteko, igogailua ipiniko dute, eta komunak urritasunak dituztenendako egokituko dituzte. Horrez gainera, zerbitzuak ere egokituko dituzte. Horrela, gaur egun goiko pisuan dagoena behekoan ipiniko dute, eta alderantziz. Adibidez, jendearendako arreta bulegoa goiko pisuan ipiniko dute, oraingo bulegoa txikiegia delako. Gauza bera egingo dute udal zerbitzu gehienekin.

Lanok egin ahal izateko, 291.468,92 euroko inbertsioa egingo dute. /U.M.

ESKORIATZA

## Datorren egubakoitzean inauguratuko dute liburutegi berria

Egubakoitzean, hilaren 21ean, inauguratuko dute Eskoriatzako liburutegi berria. 18:30ean hasiko da ekitaldia, eta herritar guztiek izango dute liburutegia ikusteko aukera. Datozen egunotan, bestalde, hainbat ekintza izango dira; tartean, txotxongilo emanaldia eta Alberto Iñurrategiren hitzaldia.

Liburutegi berria Luis Ezeiza Eskolako Haur Hezkuntzako umeak dauden eraikinean dago, eta 450 m²ditu. Haur, gazte eta helduendako txokoak egin dituzte, eta ordenagailuak daude azken bietan. /M.A.

OÑATI

# Ingurumen Asterako ekitaldi ugari antolatu ditu Natur Eskolak

Datorren astelehenean (hilak 17) hasi eta hilaren 23ra arte, hainbat ekitaldi antolatu ditu Oñatiko Natur Eskolak, Ingurumen Astearen barruan.

Astelehenean bertan, hitzaldi batekin hasiko dute Ingurumen Astea: Iñaki Irizar biologoak bisoi europarraren gainean jardungo du berbaldi horretan; martitzenean, berriz, Alejandro Onrubiaren txanda izango da: pozoiak naturan duen eraginaz egingo digu berba Onrubiak.

Azken hitzaldia Iñaki Barcena EHUko irakasleak egingo du, eta lurraren goi bileren gainean egingo digu berba.

Hitzaldi horiek guztiak Natur Eskolan bertan izango dira, Olakua auzoan, 19:00etan.

Eguen iluntzean, 20:00etan, zinema emanaldia egingo dute kultura etxeko zinema aretoan: *Nómadas del viento* filma emango dute.

**ZUHAITZA PROTAGONISTA**

Hilaren 22an (zapatua), Zuhaitz Azoka antolatu dute. Goizeko bederatzietan hasita, era guztietako landare, zuhaitz eta panel informatiboak jarriko dituzte ikusgai Herriko Plazan. Eta hilaren 23an (domeka), berriz, Zuhaitz Eguna ospatuko dute. Lurgorrieta inguruan zuhaitzak landatuko dituzte.

Bestalde, datorren egubakoitzean (hilak 21), *Oihana Auhenka* ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango dugu Zubikoan. Basoa, zuhaitzak eta naturako elementuak batzen ditu ikuskizun horrek. /A.I.

**Zertzelada**

**Astelehenean (hilak 17) hasiko dute Ingurumen Astea, hitzaldi batekin, eta otsailaren 23ra arte, ekitaldi ugari izango dira, Natur Eskolak antolatuta.**

ARRASATE

# Herri barruko errepideak konpontzeko eskatu diote Diputazioari

Herritar dezentek salaketak aurkeztu ditu udaletxean. Kontua da herriko zenbait errepide txarto daudela, zulo handiak daudelako. Horren ondorioz, batek baino gehiagok kalteak izan ditu ibilgailuan. Eta kexatu egin dira udaletxean. Batez ere, GI-2620 errepidean daude arazoak, Garagartzara doan errepidean.

**DIPUTAZIOARENA**

Bada, errepide hori Diputazioaren ardurapean dagoenez, hari dagokio konpontzea. Hala izanda, Arrasateko Udalak errepidea lehenbailehen zolatzeko eskatuko dio Diputazioari. Bien bitartean, Udaleko lantaldeak behin-behineko konponketak egin ditu oraingo astean. /U. M.



ARRASATE PRESS

**Zenbaitek kalteak izan ditu ibilgailuan, zuloetan sartzearren.**

ELGETA

## Garzón epaileak Udalari eskatutako dokumentuak batzen dihardute

Urriaren 16an kaleratutako ebazpenean, "garbiketa etnikoa" egitea egotzi zion Garzón epaileak Batasunari. Esandakoa frogatzeko, HBk, EHk eta Batasunak azken 25 urteotan egindako jardueren gaineko informazio guztia eskatu die Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiei. Elgetako Udalean urtarrilaren 30ean jaso zuten ebazpena. Hala, Garzón epaileak eskatutako dokumentuak batzen dihardute, otsailaren 17a baino lehen Madrilera bidali behar dira-eta. /OXEL EROSTARBE

LEINTZ GATZAGA

## Mendebaleko Sahararen aldeko laguntza emango du herriak

Mendebaleko Saharak azken 27 urteotan bizi duen egoerari irtenbidea emateko eskatu dio Gatzagako Udalak Nazio Batuen Erakundeari. Herriko alkateak sinatutako gutun bat bidali diote NBEko idazkari nagusi Koffi Annani.

Horren haritik, Sorginak emakume taldeak ere Mendebaleko Sahararen aldeko kanpaina bultzatu gura du herritarren artean; azken asteotan ibarrean egin den kanpaina hartuko dute erreferentziatzat, baina oraindik ez dute erabaki zer egingo duten. /A.G.



ENEKO AZKARATE

# Carlos Varea

Arabiar Kausarekiko Elkartasun Batzordeko Kidea

# "Jokabide ergela darabil Aznarrek, ez Europako ez eta Espainiako interesei ez dielako erantzuten"

AMERIKETAKO ESTATU BATUEN ESTRATEGIA

**"Etorkizunean, Iraken administrazio militar bat edo aldeko gobernu bat agintean ipini, petrolioa kontrolatu eta, horrekin, Saudi Arabiari aurre hartu nahi diote AEBek"**

ISRAELEK IRABAZTEN DU GEHIEN

**"Gerrarekin, Irakek izan dezakeen indar ekonomiko, politiko eta militarra ahuldu egingo da eta, hortaz, arabiar estatu indartsuena kontrolpean izateko aukera izango du"**

Iraken aurka Ameriketako Estatu Batuek iragarri duten eraso militarra dela-eta, Ekialde Hurbilean bizi den egoera aztergai izan du oraingo astean Carlos Varea (Madril, 42 urte) Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasleak Arrasaten egin duen hitzaldian. Gai horren gainean mintzatu gara harekin.

ENEKO AZKARATE

**Zergatik eta zertarako da gerra hau?**

Topikoa bada ere, nik uste dut herritarrek oso barneratuta daukatela gerra hau, batik bat, petrolioarengatik dela. Ekialde Ertaina da munduko petrolio hornitzaile nagusia –mundu osoko petrolio erreserba guztien %65 Ekialde Hurbilean dago–, eta herrialde industrializatuek geroago eta mendekotasun handiagoa dute hango petrolioarekiko. Hortaz, interes estrategiko handiko tokia da hura. Gerra honekin, Irak birgizarteratzera behartu nahi dute Ameriketako Estatu Batuek eta haien aliatuek.

**Ameriketako Estatu Batuek, hortaz, Iraken petrolioa kontrolatu edo Ekialde Ertaineko mapa aldarazi nahi dute?**

Ez da erraza asmatzea zer gertatuko ote den inguru hartan gerraren ostean. Edozelan ere, azken urteotan, hainbat arabiar herrialdek, Saudi Arabiak, esaterako, topo egin dute Ameriketako Estatu Batuen interesekin. Eta, horren aurrean, Ameriketako Estatu Batuek, etorkizunari begira, Iraken administrazio militar bat edo aldeko gobernu bat agintean ipini, petrolioa kontrolatu eta, horrekin, Saudi Arabiari aurre hartu nahi diote. Bestalde, hainbat herrialderen mugak aldatzea ere aurreikusi dute AEBek. Horiek guztiak aurrez pentsatutako planak edo, gerraren ostean, gerta daitezkeenak izango lirateke. Edozelan ere, gerrak egonkortasuna galaraziko du Ekialde Ertainean.

**Nork irabazten du, nagusiki, gerrarekin?**

Lehenik eta behin, eta bereziki, Israelek. Gero, ikusi egin beharko da AEBen ekonomiarendako eta gizartearendako onerako izango den edo ez. Baina argi dago irabazle nagusia Israel izango dela. Gerra honekin, Irakek izan dezakeen indar ekonomiko, politiko eta militarra ahuldu egingo da eta, hortaz, arabiar estatu indartsuena kontrolpean izateko aukera izango du. Gainera, Israel da, une honetan, amerikarrek Ekialde Ertainean izan dezaketen aliatu fidagarri bakarra. Bestalde, jakina, AEBek ere irabaziko dute gerrarekin. Erresuma Batuaren eta Europako beste herrialde batzuen eragina, ostera, ez dut uste hain garrantzitsua izango denik etorkizuneko Ekialde Ertainean. Etorkizunean, Ameriketako Estatu Batuek Irakeko petrolioa kontrolatuko dute eta, berriz, gaur egun Irakeko ohiko hizketakide izan diren herrialdeak, Errusia, batez ere, baina baita Europako beste batzuk ere, ordezkatuta geratuko dira. Duda barik, Ipar Amerikako kapital handiak ere asko irabaziko du.

**Europak zer dauka irabazteko?**

Europako herrialdeek ez dute ezer irabaziko. Europako herrialdeak apurka-apurka Irakekiko hurbiltzen hasiak ziren: harreman komertzialekin, enbaxadak zabalduz… Hortaz, gerrak ez die onik ekarriko herrialde horiei. Edozelan ere, Aznarren ustea da Bushek mezu garbia bidali diela Europako herrialdeei, esanez, gerrarekin onurak lortuko dituztela eta Irakeko petrolioa kudeatzeko aukera izango dutela. Nik, baina, ez dut uste hori horrela izango denik. Irakeko azken gerrarekin ere horrelako zerbait gertatu zen, alegia, AEBak nagusitu zirela Ekialde Ertainean. Gerra eta gerraren onurak –horrela esan badaiteke– amerikarrek kudeatuko dituzte; hori argi eta garbi daukat.

**Eta nork galtzen du, batik bat, Irakeko gobernuaz eta herritarrez gain?**

Batez ere, irakiarrek. Izan ere, azken 12 urteotan bizi duten eskasia areagotu egingo da eta biziraupen apurra suntsituta geratuko zaie. Bestalde, inguru hartako herrialde arabiarrek ere galduko dute; izan ere, azkenaldian, Irak bazkide garrantzitsua izan da herrialde arabiarrendako, Egiptok, Jordaniak, Siriak eta Yemenek harekiko harreman komertzialak areagotu egin dituztelako. Gerraren ondorioz, berriz, Iraken eragina desagertu egingo da eta Israelen eta amerikarren interesen zerbitzura sortuko diren harreman komertzial berriek herrialde arabiarren mendekotasuna areagotuko dute.

**Eta europarrok zein neurritan jasango ditugu gerraren ondorioak?**

Politikari dagokionez, dagoeneko pairatu ditugu gerraren ondorioak, Europako Batasuna zatituta dago-eta. Eta, zatiketa hori bultzatu duenetako bat Aznar izan da, Europako zortzi gobernubururen gutunaren bultzatzaile nagusia izan da-eta. Arazoaren aurrean Europak izan zezakeen egitasmo politiko batua puskatu du Aznarrek. Bestalde, AEBak Ekialde Ertainean nagusitzen badira, eta badirudi horrela izango dela, Europako eta Asiako potentzien mendekotasuna amerikarrekiko areagotu egingo da. Eta ezin dezakegu ahaztu gerraren beste ondorio bat: ekonomiaren atzeraldia edo krisia, batez ere, gerra asko luzatzen bada.

**Aznarrek kontu honen gainean darabilen jarrerari zer irizten diozu?**

Gerra, moralki justifikatu ezina eta ez legezkoa da, batzuek legitimatu nahi badute ere. Gainera, jokabide ergela darabil Aznarrek, ez Europako ez eta Espainiako interesei ez dielako erantzuten. Hortaz, Bushen bigarren lagun handia izatearrenedo ibiliko da dabilen moduan. Argi daukadana da Europako Batasuneko presidente izateko aukera gutxi daukala, azken baten hark leherrarazi du-eta Europako Batasunaren jarrera batua.

**Bakea eta segurtasuna bermatzeko gerra beharrezkoa dela dio Aznarrek…**

Bushen diskurtsoa errepikatzen du Aznarrek, eta diskurtso hori gezurrezkoa da. Irak ez da mehatxua ez haren inguruko herrialdeendako, ez Europarendako, ezta Amerikarendako ere. Bada, Saddam Husseinen erregimenaren gaineko iritzi kritikoa izan dezakezu, baina erregimen horrek 12 urte daramatza nazioarteko erakundeen kontrolpean. ONUk berak dio Irak ez dela mehatxua ez militarki, ez ekonomikoki. Hortaz, esku-hartze militarrak *Pandoraren kutxa* irekiko du eta egoera okertu eta nahastuko du, eta ezegonkortasuna areagotu egingo du. Bestalde, terrorismo islamiarrarekin amaitu nahi bada, okerreko bidea hartuko dela argi dago, gorrotoa areagotu egingo da-eta.

**Herrialde islamiarrei zein irtenbide geratzen zaie?**

Nahi ez zuten gerrari babesa ematera behartu dituzte gobernu arabiarrak. Saudi Arabiari, esaterako, erreinua bi zatitan banatzeko mehatxuak egin dizkiote amerikarrek.

**Gerra ezinbestez egingo da?**

Gerra erabakita dagoela baina ekidin ezina ez dela esaten ari gara behin eta berriz. Gerra estrategia Clintonen agindupean onartu zen, 1998an. Baina gerra ez da ekidin ezina. Herri mugimenduak indar handiz erantzuten dihardu. Oraingo zapaturako, esaterako, hainbat kale agerraldi iragarrita daude mundu osoan barrena. Uste dut mobilizazio horiek hainbat gobernu eta indar politikoren jarrera aldaraz dezaketela. Espainiako gobernuarena, akaso ez, baina tira.

**Espainiako aktoreek gerraren aurka egindako aldarrikapenen gainean zer iritzi daukazu?**

Herritarren iritzia publiko egin dute aktoreek, herritarren gehiengoa gerraren aurka dago-eta. Hortaz, gerraren aurkakoen bozgorailu baino ez dira izan.

**Eta hainbat iritzi emailek aktoreei egin dizkieten kritiken gainean?**

Herritarren gehiengo handia gerraren aurka egon arren, oso deigarria da Radio Nacional de España edo beste irrati pribatu batzuetako tertuliano guztiak gerraren alde agertzea.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko otsailaren 14a

# Zabalik



RUFINA OLASAGASTI

## Kontrasteak

**Azaroko arrats hotz batean, Bruselako parte zaharreko kale estuetan, jatetxeak kanpoko toldopean eta mostradore batzuetan erakusteko jartzen ari ziren euren jakiak: askotariko arrainak, haragiak, itsaskiak, entsaladak, edari bereziak… Baita bezeroendako apain prestatutako mahaitxoak ere.**

**Baina kalean hotz zegoen, izotz puntuan, eta abriguak ongi jantzi behar ziren eta baita botak, bufandak eta goanteak ere. Nori bururatuko zaio giro honekin eseri eta kanpoan afaltzea? Ez ote dago Bruselan afaltzeko hori baino toki egokiagorik?**

**Inguratzean, ordea, hotz nabarmenik ez zegoen han, halako epeltasun bat nabari zen. Nola ote? Bazterretara begiratu eta han ageri ziren berogailuak toldo pean jarriak, jendeak eseri behar zuen lekurantz zuzenduta.**

**Hurrengo goiza egun hotza eta lainotua zen. Ateri zegoen. Eguerdi aldera, eraikin industrial bateko nabe handi baten hormaren ondoan kartoiak ikusten ziren, eta gertuagotik baita akoltxatu moduko jantzi bat kartoi artean ere. Bertatik pasatzean ikusi genuen andre bat zetzala bertan, erdi lotan, kartoi gainean etzanda eta kartoiekin tapatuta.**

**Batzuek etxetik kanporaino luzatzen dute etxearen babesa eta erosotasuna; besteek kanpoa besterik ez dute. Sofistikazio handienaren ondoan oinarrizko premiak erantzuteke.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## Ezker Batua, aurrera!

Lehenik eta behin, tarte hau aprobetxatu nahi nuke Ezker Batuaren eta nire salaketa pertsonala agerian uzteko, pasa den zapatuan izan zen erailketaren aurrean. Nire doluminak Joseba Pagazaurtunduaren senitarteko, lagun eta kide guztiei. ETAri derrigorrezko exijentzia: indarkeria behin betiko albora dezala, erailketen bidetik ez baikoaz inora. Batasunari ere eskaera bat: ahalegin guztiak egin ditzala indarkeria egikaritzen dutenei berorren antzukeriaz sinistarazteko, izugarrizko erantzukizuna duelako eginbehar horretan.

Munduko gauzarik errazena da atentatuak salatzea, etiko nahiz politikoki beharrezkoa, baina berez ez du ezer berririk ekartzen Ezker Batuak 1986az geroztik mantendutako jarrerari begira. Salaketa ezinbestekoa izanik, neurri legalak eta politikoak behar dira atentatuekin amaitzeko.

Gauza batzuk egin dira dagoeneko, baina zoritxarrez, egindakoa ez da nahikoa izan edo norabide okerrean bideratu da. Izan ere, are zailagoa da oraindik arazoei irtenbide egoki eta ongi pentsatuak ematea. Ildo horretan, Izquierda Unidak Estatu mailan, Ezker Batuak Euskal Herrian eta Ezker Batuak Arrasaten, zentzuz eta koherentziaz jokatu dutela uste dugu. Bakerako bidea egunez egun jorratzen da, giza eskubideak aldarrikatuz, indarkeria ukatuz eta elkarrizketa politikoa bultzatuz; elkarrizketak bideratuko gaitu bakerantz, hortaz, ekin diezaiogun bada!

Aitzitik, denek ez dute horrela pentsatzen. Arrasaten beste hainbat herritan bezala, Ezker Batuaren eginkizunari gogor astindu dion alderdia PSE-EE izan da, amaitzear dugun legegintzaldi osoan zehar, alegia. Zalantzarik gabe, alderdi sozialistak ez du behar bezala onartu Ezker Batuak duintasun osoz erdietsi izan duen onespen politiko, sozial eta instituzionala, bai herrigintzan, baita lehen aipatu gainontzeko bi eremutan ere. Ulertzekoa da, bestalde, jakin badakite-eta, euskal ezker eraldatzaile eta benetan alternatiboaren trena duela urte asko galdu zutela. Hori gutxi balitz, hurrengo hauteskundeak gainean ditugu eta azken lau urtetako zentzugabeko irain puntualak maizago errepikatuko zaizkigu, nola edo hala.

Halaber, azkenaldian PSE-EEk Arrasateko Ezker Batuari ere egindako akusazioak elektoralismoaren zakura sar genitzake. Jarrera honen aspekturik salagarriena, ordea, alderdi sozialista Arrasaten iritzi publikoa etengabeki nahastu nahian dabilela da, gure ustez. Ez dute bat ere gustuko Ezker Batuak hainbat eta hainbat eztabaidatan arrasatearren aurrean mantendu izan duen irizpide berezko eta kritikoa, herriko kontuetan ez ezik, Irakeko gerran, *Prestige* auzian edota herri honi sor zaion normalkuntza politikoan ere bai. Gauzak horrela, eta pisuzko argudiorik ezean, betiko propagandari eutsi diote, hots, Arrasateko Ezker Batua terrorismoaren lekuko omen dela Batasunarekin duen gobernu hitzarmena dela-eta. Ustezko argudio honen aurrean gure jarrera argia izan da eta hala adierazi dugu Ezker Batutik at eta barrena.

Ezker Batuak ETAren erailketa guztiak ozenki salatu ditu, Arrasaten gobernuko kide duen alderdi politikoaren iritziarekin bat ez etorriz ondorioz. Gauzak horrela, gutxienez legegintzaldi hau amaitu arte gobernu hitzarmena bete egingo dugu Batasuna alderdi politikoarekin, arrasatearren onurako politika aurrerakoiak nahi ditugulako eta terrorismoaren gaitzespenean autonomia osoa dugulako. Ezker Batuak berak aztertuko du zer gertatzen den udal hauteskundeen ondoren. Horren aztoratua dagoen egoera politiko sinesgaitz honetan batek daki.

Bitartean, argi daukaguna da Ezker Batua aurrera doala, astiro baina koherentziaz, Arrasaten eta edonon, eta horrek askoren haserrea dakarrela.

JOSEBA UGALDE
(EB/IU-KO ZINEGOTZIA ARRASATEN)
Arrasate

## Debagoienean, 110.000 bizilagun?

GOIENKARIAko otsaileko lehenengo alean, Debagoienak hurrengo 15 urteotan izango duen hazkundeari buruzko erreportajeak harri eta zur utzi nau. Bertan, 2018 urterako 65.000 biztanletik 110.000 arteko populazioaren hazkundea aurreikusten da. Planteamendu honen baitan, Urkuluko ingurunean kokatutako 10.000 bizilagunendako "eko-hiri" bat aipatzen da.

Garbi dago populazioaren jaitsiera, eta ondorioz emigrazioa, zonalde honi gertatu dakiokeen okerrena dela. Bestalde, besterik gabeko hazkundea ere ez dela gomendagarria uste dut. Nolabait esan nahi dudana, populazioaren hazkundeak, alor eta sektore ezberdinen garapenean oinarrituta egon behar duela da, hau da, industrial, komertzial, zerbitzu, nekazal eta abarren garapenean. Azken finean, populazioaren hazkundeak enplegu berrien sorreraren ondorio naturala izan behar du.

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak %70eko populazioaren hazkundea aurreikusten dute datozen 15 urteotan. Horrela izatekotan, herri bizi eta konprometitu bat imajinatu nahi dut, sektore ezberdinetan enplegua sortu eta mantenduko duen biztanleria.

Ezela ere ez dut pentsatu nahi inguru eder baten bizi eta zonaldetik kanpora lan egingo duen komunitate birtual bat.

Ondorioz, datozen 15 urteotan zonalde mailan enplegua sustatuko duten ekintzak ezagutu nahi nituzke. Aspektu hauek zabaltzeko GOIENKARIA medio apropos dela uste dut. Gaur arte argitaratutako informazioa ezagututa beharrezkoa ikusten dut hazkunde honen zergatiak eta fundamentuak ezagutzea. Horrela, beharbada, baikorrago eta motibatuago senti gaitezke.

Plan hau koherentea den heinean, eta behar errealei erantzuten zaien heinean, zonalde mailan landu beharreko garapena dela deritzot, herri bakoitzak izan ditzakeen plan urbanistikoen gainetik.

Baina ezagutu beharra daukat… lanak ongi eta txukun eginagatik inguruneari egingo zaion kaltea hor egongo da. Ez dut uste inork zentzurik gabeko hazkunderik nahi duenik. Nik ez behintzat.

ALBERTO URIBETXEBARRIA
Aretxabaleta

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Arrasateko Aita Menni ospitalari kritika

Gutun honen bidez, zera adierazi nahi dut, Aita Menni Ospitalean dauden gaixoen egoera eta zainketa eskasa. Beharbada ez duzue zuzen zuzenean buruko gaixotasuna ezagutzen, agian bai. Hala ere, niri azken asteotan ikustea tokatu zaidana islatzea dut helburu.

Gauzak horrela, asteburuan, betiko legez, familiarteko bat bisitatzera joan nintzen. Aita Menni Ospitalean sartu, pasabide luzea zeharkatu, eta bukaeran "geriatriko" deitzen dioten solairura heldu nintzen.

Solairuko egongelan sartu eta beti ikusi dudana ikusten dut, ezkerrean gutxi gorabehera ongi dauden gaixoak. Eskuman, eta ia gordeta, guztiz ezinduak. Baina hori ez da guztia, ezinduen artean, bata guztiz zikin, bestea lurrera jausteko zorian, bestea albokoari joten... eta langileak non eta alboko aldean patxada handiz telebista ikusten. Norbaiti ordaintzen al diote telebista ikusteagatik? Aita Mennin, itxura denez, bai.

Lerro hauen bitartez ez dut inor salatu nahi, bakarrik mailegu bidez gure familiartekoen egonaldi behartua ordaintzen dugunon min latza agertu nahi dut. Norbaitek gai honi buruzko komentariorik edo iritzirik bota nahiko balu, nire posta elektronikora bidali: *dgonzalez_4@hotmail.com*. Eskertuko dut, hoberako bada behinik behin.

DOLTZA GONZÁLEZ
Gasteiz

## Justizia euskararentzat

Lerro hauen bidez, hurrengo asteotan etxean jasoko duzun eskuorri baten inguruko informazioa eman nahi dizugu. Eskuorri horrek *Justizia euskararentzat* izenburua du.

Gogoratuko duzu iaz, gai hau zela-eta, Arrasaten eta Bergaran sinadura bilketa kanpaina bat egin zela. Kanpaina horren barnean hitzaldi interesgarri batzuk antolatu ziren eta bertatik ateratako ondorioa honako hau izan zen: Euskaldunok justiziarengana jotzean euskara erabiltzea dela justizia euskalduntzeko ardatza.

Izan ere, erraz aurki dezakegu horren zergatia. Batetik, badakigu euskaraz egin nahi izan arren, askotan ez dugula honetarako aukerarik izaten, epaitegietan euskararen presentzia eskasa baita. Datuak ikusi besterik ez daukagu; gure ibarrean, Debagoienean, biztanleen %63 euskalduna den arren, Bergarako epaitegian epaileen %100 erdaldunak dira (4tik 4) eta funtzionarioen %68 ere bai. Baina, bestetik, geuk, euskaldunok, epaitegira goazenean askotan ez dugu geure ama hizkuntza erabiltzen, gaztelerarekin hobeto elkar ulertuko dugulakoan-edo.

Beraz, lerro hauen bidez, irakurleoi eskatu nahi dizuegu epaitegian euskara erabiltzeko, ezkontza, jaiotze edo bestelako egoeratan euskaraz egiten ahalegintzeko. Azken batean, geu, herritarrok, garelako normalizazioaren zutabe.

DEBAGUNE
Debagoiena

## Gerrarik ez!

Bushen administrazioaren jarrera erasokorrak ez du zerikusirik terrorismoaren aurkako gerrarekin, edo Saddam Hussein diktadorea eta kriminala izatearekin, edo horren erregimenarekin, edo ONUren aginduak ez betetzearekin, edo suntsipen masiboko armak izatearekin. Armak dituela? Baita beste batzuek ere: Egiptok, Pakistanek, Israelek, AEBek, eta abarrek.

AEBek Iraki erasotzeko arrazoiak hauek dira: Etxe Zuriak terrorismoaren aurkako jarrera orokorra sortu gura du, munduan bere legea ezartzeko, eta Europako eta Asiako potentzien gainetik jarri, bere indar militar eta ekonomikoa ezarriz. Barne-hauteskundeen inguruko arrazoiak ere baditu.

Baina ezin da ahaztu Irakek petrolio asko duela eta Bushen gobernua, Cheney, Ramsfeld…, petrolioaren handikiak direla, AEBetako petrolio-konpainia multinazionalekin dituen harremanengatik. Hala ere, gai hori ez da inoiz ere aipatzen. Beste arrazoi batzuk aipatzekotan, Iparramerikako arma-industrien interesak azpimarratu behar dira, eta baita Washingtonen estrategia erdiekialdearekiko, estatu arabiarrak, Israel… kontrolatzeko.

Amerikako Estatu Batuetako agiri ofizialetan honela dago zehaztuta terrorismo hitza: "biolentziaren nahitako erabilera edo biolentzia-mehatxua, helburu politiko, erlijioso eta ideologikoak lortzeko. Beldurra eta indarkeria erabiliz burutzen da".

Nola kalifikatu behar ditugu, bada, planeta osoan zehar eragin dituen esku-hartze militarrak, gerrak, diktadura kriminalen ezarpenak, bonbardaketak eta hiritarren heriotza masiboak?

Berak ematen dituen definizioen arabera, AEBak dira munduko terrorista nagusi, politika genozida praktikatu ohi duelako bere interesetan tartekatzen den estatu guztien gainean. Aitzitik, ez da estaturik ausartu bere kontra egiten.

Eta Aznarren gobernua? Zergatik dago Aznarren gobernua AEBen gerraekintzen alde? Lehen Iraken, Serbian eta Afganistanen bezala, milaka hildako eragin behar al ditu? Inork ez ditu aipatzen baina guztiok dakigu hala dela. Zergatik da AEBen laguntzaile herri baten aurkako genozidioan, Irakeko erregimena aldatzeko beharra aitzakiatzat hartuta?

Hiritarrok AEBei ekintza militarretan inolako laguntzarik ez emateko eskatu behar diogu Aznarri. Ezinbestekoa da. Izan ere, gerrek ez dute gose edo biolentzia arazorik konpontzen eta gatazkak bake-giroan konpondu behar dira, herrialde pobreetako bazterketa eta miseriaren nondik norakoak aztertuta.

DEBAGOIENEKO ZUTIK
Debagoiena

## Joseba Pagazaurtunduaren erailketa dela-eta

Andoaingo Udaltzain buru eta militante sozialista Joseba Pagazaurtundua Ruizen erailketa dela-eta, ondorengo gaitzespen mozioa onartzea eskatu dugu Arrasateko Udalean:

1. Udal bateko langile baten erailketa irmoki gaitzestea.

2. Arrasateko Udalak elkartasuna adieraz diezaiela, bai Joseba Pagazaurtundua Ruizen senitartekoei eta baita, bortxakeria erabiltzen dutenen aldetik mehatxuak eta jazarpenak pairatzen duten Euskadiko hiritar guztiei.

3. Norberak bere ideiak askatasunez adierazteko eskubidea exijitzea.

4. ETAri exijitzea bortxakeria jarduera guztiak utz ditzala.

5. ETAren eta honen ingurukoen bortxakeriak, erailketak, estortsioak eta mehatxuak publikoki gaitzesten ez dituen herriaren ordezkari ororen jokabidea zentsuratu eta gaitzestea, eta, era berean, hauei guztiei edozein laguntza ukatzea ordezkatuta dauden gobernuorganoetan.

6. Lehendakariari eskatzea gobernari orok duen lehendabiziko ardura bete dezala, terrorismoaren erradikazioari lehentasuna emanez, alderdikerien gainetik, hau delako euskaldun guztien aspirazioa.

7. Akordio honen berri hedabide guztietara eta Lehendakaritzara bidaltzea.

FRANCISCO GARCÍA RAYA
(PSE-EE-KO BOZERAMAILEA
ARRASATEKO UDALEAN
Arrasate

## Hautagai euskaldunak

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak maiatzean egin behar diren hauteskundeetan aurkeztuko diren hautagaiak euskaldunak izateko eskaera egin die alderdi politikoei bidalitako eskutitzaren bidez. Kontseilua kezka handiz ikusten ari da alderdi batzuek jendaurrean aurkeztutako hautagaiak euskal hiztunak ez izatea.

Kontseiluaren ustez, udal eta foru hauteskunde hauetan aurkezten direnak euskal hiztunak izatea oso garrantzitsua izango da hizkuntz normalizaziorako. Herri honen ordezkari politikoak izango direnek bertoko hizkuntza ez ezagutzea larritzat jotzen du Kontseiluak. Gainera, euskaltzaleak eta abertzaleak diren alderdiek hautagai erdaldun elebakarrak aurkeztea are ulergaitzagoa da.

Kontseiluak bidalitako eskutitzean hautagaiak euskal hiztunak izatearen garrantzia azpimarratzen da: "Hizkuntz normalizazioa lortzeko denon partehartzea beharrezkoa da, gizarte eragile, instituzio, herri erakunde eta abarrena. Horregatik hurrengo maiatzetik aurrera gure udalak eta foru instituzioak zuzenduko dituzten pertsonak euskal hiztunak izatea lagungarria izango da euskararen garapenerako".

Eskutitz berean ere beste eskaera bat egin du: "hauteskunde programetan euskararen sustapen eta normalizazioaren aldeko ekimenekiko dituzuen asmoak azaltzea ere garrantzitsua izango da, herritarrok gure botoa erabakitzean irizpide hori ere kontuan har dezagun".

LARRAITZ MENDIZABAL (KONTSEILUA)
Andoain

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

## *'Prestige'-k egindako hondamenaren inguruan Jaurlaritzak egoki dihardu?*

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA**
Eneko Azkarate
**ERREDAKZIO KONTSEILUA**
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

**ADMINISTRAZIOA**
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
**SAILETAKO ARDURADUNAK**
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

**PUBLIZITATEA**
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
**PRODUKZIOA**
Iban Arantzabal

**TESTUEN ZUZENKETA**
Sergio Azkarate
**HARPIDETZA ETA BANAKETA**
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**LEHENDAKARIA**
Estepan Plazaola
**ZUZENDARI NAGUSIA**
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

*Podiuma*

# Antxon Bandres | EUSKAL MENDIZALEEN PRESIDENTEA |

**Egun gogorra dute bihar Euskal Mendizale Elkarteko kideek: goizean, mendizale onenak sarituko dituzte, eta arratsaldean, batzarra egingo dute Elgetan. Antxon Bandresekin egin dugu berba horien gainean.**

**Elgeta eta Euskal Mendizale Elkartea aspaldi daude elkarri lotuta. Elkartea Elgetan sortu zen, ospakizun garrantzitsuenak bertan egiten dituzue, baita azken urteotako batzarrak ere.**

Elkartea Elgetan sortu zenez, euskal mendizaleok badaukagu Elgetarekiko sentimen kutsua. Elkartearen 75. urteurrena Elgetan ospatu eta gero, urteko batzarra ere bertan egitea erabaki genuen. Kontuan hartu behar da Elgetan Mendi Museoa eraikitzeko asmoa ere badaukagula.

**Zelan dago museoaren kontua?**

Museoa eraikitzeko asmoa aurrera doa. Elgetako Udalarekin harreman estua daukagu eta hiru urteren barruan museoa zabalik egotea gura genuke. Museoa zelan osatuko dugun ere pentsatzen dihardugu. Adibidez, aurten, Bilbon erakusketa egingo dugu; hantxe jasotzen dugun materialak museoa zabaltzen dugunerako balioko digu. Gure elkartearen eskuetan dagoen *Tximist* espedizioko Everest-eko maketa ere Elgetan gordeko dugu batzarraren ostean.

**Zeintzuk dira aurten aurrera eramango dituzuen proiektu garrantzitsuenak?**

Hiru urte daramatzagu alpinista gazteak gertatzen. Alpinista gazte horiekin espedizio bat egitea da aurtengo proiektu garrantzitsuenetakoa. Bestalde, Udako Euskal Unibertsitatean mendizaletasunaren gaineko eskolak emango dira.

**Zelan dago mendizaletasuna Debagoienean?**

Euskal mendizaleondako, harrobi garrantzitsua da Debagoiena. Mendizale asko egoteaz gain, punta-puntan dihardutenak ere ugari dira. Bihar goizean, adibidez, euskal mendizale onenak saritukoditugu. Andres Espinosa saria debagoiendar batek, Alberto Iñurrategik, irabazi du. Alberto Urrezko Pioleta irabazteko zorian ere izan da.

**Euskal mendizaleak goi mailan egoteak lagunduko zuen Euskal Mendizale Elkartea nazioartean onartzeko.**

Euskal mendizale onenak sarituko ditugu bihar. Espainiako Mendizale elkarteak gustura hartuko lituzke guk han izango ditugun sarituak. Alpinismoan, eskaladan, mendiko eskian, mendiko medikuntzan... Mendiko espezialitate gehienetan euskal mendizaleak oso ezagunak dira nazioartean. Horrek lagundu egin zuen gure elkartea Mendizaleen Elkarte Internazionalean onartzeko. Dagoeneko bi batzordetan ere hartzen dugu parte: Mendi Eskubideen batzordean eta Mendiko Medikuen batzordean. Euskal mendizaletasunak doan bidetik jarraitu behar du.

OXEL EROSTARBE


GOIENA
Antxon Bandres, Euskal Mendizaleen Elkarteko presidentea.

> **“Elgetan eraikiko den Mendiaren Museoa hiru urteren buruan zabalik izan gura genuke; museoa zelan osatu pentsatzen dihardugu”**

> **“Euskal mendizaleen mailak lagundu egin du, gure elkartea Elkarte Internazionalean onartzeko orduan”**

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Real Union-Bergara: 1-1 / Aloña Mendi-Amaikak Bat: 2-3 / Hondarribia-Aretxabaleta: 0-2 / Mondra-Zestoa: 1-0

### ASTEKO JOKALARI ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Eric García | (Aretxabaleta) | 3 puntu |
| 2. | Mikel Mondragón | (Mondra) | 2 puntu |
| 3. | Markel Egaña | (Bergara) | 1 puntu |


1 **Eric García** Aretxabaleta


2 **Mikel Mondragón** Mondra


3 **Markel Egaña** Bergara

**Eric García**
Aramaiorra trebea da golak sartzen. Oraingoan, buruz.

**Mikel Mondragón**
Atezaina bikain ibili zen Atxabalpen.

**Markel Egaña**
Bergarako atezainaren geldiketak, erabakigarriak.

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Eric García | (Aretxabaleta) | 9 puntu |
| 2. | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 9 puntu |
| 3. | Gorka San Vicente | (Bergara) | 9 puntu |
| 4. | Alberto Matalobos | (Aretxabaleta) | 6 puntu |
| 5. | Jon Altzola | (Bergara) | 6 puntu |


1 **Eric García** Aretxabaleta


2 **Jon Muruamendiaraz** Mondra


3 **Gorka San Vicente** Bergara


4 **Alberto Matalobos** Aretxabaleta


5 **Jon Altzola** Bergara

Goienkaria

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Jesus García-Etxabe
## Pilota


Jesus García-Etxabe, partidu bat jokatu aurretik.

**Arrasateko Txapelketa irabazi zuen 1956an.**

**Debarroko txapeldunorde izan zen 1967an.**

**Legazpiko Txapelketa irabazi zuen 1968an.**

Gaztetan ekin zion Jesus García-Etxabek pilotan jokatzeari. 17 urterekin jantzi zituen lehenengo aldiz praka zuriak. Aretxabaletako frontoian jende asko batzen ei zen: “Frontoi zabala zen Aretxabaletakoa; gainera, ez zeukan teilaturik. Sarritan, goizean jokatu beharreko partiduak arratsaldera atzeratu behar izaten genituen, euria hasten zuelako. Behin, Debarroko Txapelketako finalean, Eibarren aurka 21-20 irabazten gindoazela euria hasi zuen eta partidua bertan behera utzi behar izan genuen. Astebete geroago jokatu genuen finala, eta 22-10 irabazi genuen. Orduan, jende asko gerturatzen zen partiduak ikustera. Txapelketak finalera gerturatzen ziren neurrian betetzen ziren frontoiak”.

Partiduetara joateko nahiko lan izaten zuten: “Partiduak gertu zirenean, motoan joaten ginen. Donostiara edo Nafarroara joateko, berriz, trena hartzen genuen. Sarritan ezin izaten ginen egun berean bueltatu”. Aurrelaria zen Jesus, eta ezkerra. Beretzako Legazpin irabazitako txapelketa izan zen garrantzitsuena: “1968an, Juan Mari Azkarate arrasatearrekin batera, Segurakoei irabazi genien txapelketa hura. Berasaluze IV.ari irabazi nionekoa ere gogoan daukat. Hura gazteagoa zen, eta bi bider irabazi nion lau t’erdiaren barruan”. 1956an, Arrasateko txapelketa irabazi zuen, banaka eta binaka: “Banaka Usturitzen aurka irabazi nuen eta binaka Iñaki San Migel izan nuen bikotekide”. Bi haiek ere garaipen garrantzitsuak izan ziren. Debarroko Txapelketan ere askotan hartu zuen parte; hala, 1967an, Debarroko txapeldunorde izan zen, Errastirekin batera./O. E.

> ***“Berasaluze IV.ari irabazi nionekoa daukat gogoan. Hura gazteagoa zen, eta bi bider irabazi nion lau t’erdiaren barruan”***


Jesus García-Etxabe • Aretxabaleta • 1936

# Euskarazko kirol fitxa didaktikoen aurkezpena

## Oinarrizko soin hezkuntzaren, natura ekintzen eta xakearen gaineko fitxak aurkeztu dituzte aurten

**K*irola euskaraz* programaren barruan aurten argitaratutako fitxa didaktikoak aurkeztu zituzten martitzenean. Euskara eta kirol zerbitzuek dagoeneko hamasei fitxa didaktiko argitaratu dituzte.**

Debegesak Eibarren duen bulegoan egin zuten martitzenean *Kirola euskaraz* programaren barruan argitaratu diren azken fitxa didaktikoen aurkezpena. Fitxa horiek urtero irteten diren beka batzuen ondorioa dira: 3.000 euroko beka kirol bakoitzeko. Bekon helburua da hainbat kiroletako monitore eta irakasleek euskaraz egindako material didaktikoa eduki ahal izatea.

Debarroko euskara eta kirol zerbitzuek oinarrizko soin hezkuntzaren, natura ekintzen eta xakearen gaineko fitxak aurkeztu zituzten. Hala, natura ekintzen fitxak egiteaz Damaso Gallastegi bergararra arduratu da. Hark egindako fitxek mendizaletasuna, orientazioa eta eskalada dituzte oinarri; xakearen gaineko fitxak, bestalde, Xabier Sarasua aretxabaletarrak egin ditu. Lan kontuak direla-eta, ezin izan zuen fitxen aurkezpen ekitaldian egon. Haren ordez, Josu Tornay xakelari arrasatearra izan zen; azkenik, soin hezkuntzako fitxei dagokienez, Alazne Mutiloa hernaniarrak egin ditu. Soinketako fitxok zazpi kapitulutan banatu dituzte, eta 112 joko baino gehiago daude.




O.E.

Debarroko euskara eta kirol zerbitzuek prentsaurrekoa eman zuten, eta aurten argitaratutako fitxak aurkeztu zituzten.

**AURTENGO BEKAK AURKEZTEKO EPEA**

Ekitaldi berean, Debarroko euskara eta kirol zerbitzuetako arduradunek gogorarazi zuten aurtengo fitxen bekak aurkezteko epea amaitzear dagoela. Fitxa berriak aurkezteko epea hilaren 25ean amaituko da. Eta, kasu horretan, yoga, erlaxazioa eta kirol alternatiboak izan beharko dituzte hizpide. Beste urte batzuetan ez bezala, aurten emandako bekekin aterako dituzten fitxak urtea amaitu aurretik argitaratuko dituzte.

Beka horiek ere *Kirola euskaraz* programaren barruan argitaratuko dituzte. Programa horretan Debarroko hamabi udalek hartzen dute parte, eta helburua da kirola eta material didaktikoa euskalduntzea. 1996an argitaratu zituzten lehen fitxak. Ordutik hona, hamasei fitxa sorta argitaratu dituzte. Besteak beste, futbolak, eskubaloiak, saskibaloiak, errugbiak, atletismoak, igeriketak, judoak, karateak, tenisak, herri kirolek, aerobikak eta gimnasia erritmikoak dituzte euskarazko fitxa didaktikoak.

OXEL EROSTARBE

# Markel Irizar, txirrindularitzara bueltan

## Minbiziari aurre egin ostean, entrenamenduei ekin die txirrindulari oñatiarrak

**Uda ostean txirrindularitza uztera eraman zuen gaixotasuna gainditzeko bidean da Markel Irizar. Dagoeneko amaitu ditu kimioterapiako saioak, eta ekin dio bizikletan entrenatzeari. Bizitzako lasterketa garrantzitsuena irabazi ondoren, lasai ekin gura dio aurtengo denboraldiari.**

Kimioterapiako lau saio hartu ostean, barrabiletan atzeman zioten tumorea desagertu egin da. Hala ere, hilero medikuarengana joan beharko du analisiak egin eta gaitza bueltatzen ez dela ziurtatzera. Bizitzan izan duen lasterketa garrantzitsuenari aurre egin ostean, txirrindularitzan pentsatzeari ekin dio Markel Irizarrek. Poliki joan gura du, ordea, aurretik inongo helbururik ipintzeke. Oñatiarrak iazko talde berean jarraituko du, Orbea taldean, alegia. Dagoeneko hasi ditu entrenamenduak, eta gaixotasunari aurre egin ostean, bizikleta gainean jartzeko ilusioa berreskuratu duela adierazi dio Markelek GOIENKARIAri: "Oraingoz ez dut helburu zehatzik ezarri gura. Poliki ekin diet entrenamenduei, eta gorputzak zelan erantzuten duen ikusi gura dut. Osasuna berreskuratzearekin batera, txirrindularitzan jarraitzeko ilusioa ere berreskuratu dut".

**MADARIAGAREN PROPOSAMENA**

Euskaltel-Euskaditik berri onak jaso ditu Markelek. Migel Madariagak adierazi duenez, Markelek lehen zuen maila berreskuratzen badu, ez du arazorik izango profesionaletara jauzia egiteko. Markelek, ordea, ez du helbururik finkatu gura. Lasai hartu gura du denboraldia, eta etortzen dena ondo hartuko duela esan digu.

OXEL EROSTARBE



Markel Irizar txirrindulari oñatiarra.

***Kirolabur***

**FUTBOLA**/DERBIA

Udak eta Aloñak derbia jokatuko dute domekan Aretxabaletan. Norgehiagoka 16:30ean izango da, Ibarra futbol zelaian. Gorka Zelaiaren mutilek derrigor irabazi behar dute; izan ere, sailkapenean azken laugarren geratzen dena erregional mailara jaitsiko da.

**FUTBOLA**/REALA

Bergarako Realzale talde batek martxoaren 16an Racing-Reala partidua ikustera joateko irteera antolatu du. Autobusa 12 euro kostatzen da, eta partidurako sarrera aparte ordaindu beharko da. Izena eman gura dutenek Erreki tabernara jo behar dute.



# Antzerkia Arrasate lau domeketan



Otsailak 16, DOMEKA
## “Spingo”
YLLANA TALDEA



Martxoak 2, DOMEKA
## “Punto Rabo”
MARKELIÑE ANTZERKI TALDEA



Martxoak 9, DOMEKA
## “Ai Ama!”
HIIKA TEATROA



Martxoak 30, DOMEKA
## “A cuestas con Murphy”
VAIVÉN PRODUCCIONES

Amaia Udal Antzokian • 19:30ean

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Kultura saila

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko otsailaren 14a

Kultura eta aisialdia

Otsailaren 14tik 21era




# Skin

## Kaskamotzak: abertzaletasunaren, jarreraren, musikaren, futbolzaleen eta parrandazaleen tribua gero eta zabalduago gurean

Orainaldia borrokatzen duen mugimendua da. Nork bere bizimodua izan dezan nahi duen mugimendua. Guztiz ezkertiarra da, eta klasista. Horrez gain, abertzaleak gara: maite dugun herriaren alde lan egiten dugu". Ez da hiztegitik ateratako definizioa, baina ezin hobeto datorkigu Debagoieneko kaskamotz edo *skinhead* mugimendua definitzeko. Bere partaideetako baten hitzak dira, izan ere. Arrazista eta biolentziaren aldeko bezala deskribatzen dituzten klixeetatik alde egin nahi dute. Nazismoarekin zerikusia duten *skinhead*-endako ere badaude hainbat izen: *bonehead*, *burezur* edo *buru hutsa*. 60ko hamarkadan, nortasun zeinuen gainetik, langileen duintasuna aldarrikatzeko jaio zen kultura hori, Ingalaterran, eta pil-pilean dugu gaur egun Debagoienean. /14 LEIRE KORTABARRIA

GOIO ARANA

TRIBUAK/ **‘SKINHEAD’ MUGIMENDUA, GERO ETA HEDATUAGOA IBARREAN**

# ‘Skinhead’-ak, topikoen gainetik

## DEBAGOIENEKO KASKAMOTZEK EUREN PENTSAERA ALDARRIKATZEN DUTE, ETA TOPIKO EZKORRAK BAZTERTZEN DITUZTE

LEIRE KORTABARRIA

**Ilea motz-motza daramate, ingelesezko izenari (*skinhead*, kaskamotz) men eginez. Musikak, estetikak, kirol zaletasunak… bateratzen ditu, baina, batik bat, ideologiak. Komunikabideekin berba egiterakoan, berba gutxikoak dira, baina euren ideiez galdetzerakoan, gustura erantzuten dute.**

Debagoieneko kaskamotzek azkar hazten dabilen gutxiengo bat osatzen dute, eta ibarra hain handia ez denez, gehienek ezagutzen dute elkar. Hori ez da arraroa; izan ere, talde bateko kide izatearen sentimendua oso errotua dute.

**ARRASATEN, INON BAINO GEHIAGO**

*Skinhead*-ek lotura asko dituzte elkarren artean: topikoak dioen moduan, ska, *oi!* eta punk musika entzuten dute gustura, baita jo ere. Topikoari jarraituz, janzkera oso definitua gustatzen zaie, ile motz-motzarekin biribiltzen duten itxura jakin bat lortzeko. Asko futbolzaleak dira, eta euren taldea animatzera joaten dira estadioetara, asteburuetan: “Lagunak familiakoak bezala dira niretako”, dioskute; horrelakoa da euren arteko lotura. *Skinhead* izatea “ez da moda, bizi izateko modu bat da”, esaten dute eurek. Ibarrean gero eta identifikazio handiagoa duen mugimendua, gainera; izan ere, Arrasaten Euskal Herriko beste inon baino *skin* gehiago dago.

**“JAKIN BARIK EGITEN DUTE BERBA”**

Estetika edo musika garrantzitsuak izan arren, beste edozein *tribu*, talde edo mugimendurekin gertatzen den moduan, *skinhead* edo kaskamotzak benetan definitzen dituena ez da musika edo estetika, ideia konkretu batzuk baizik. Horietaz galdetzerakoan, ez dago mingainari tiraka ibili beharrik; izan ere, gustura azalduko dizkiete euren ideiak entzun nahi dietenari.

“Gehienek jakin barik egiten dute berba gutaz, eta aurreiritziez fidatzen dira”, diote, haserre. Egia da, bai, mugimendu honen irudia biolentziaren eta arrazakeriaren adierazpentzat hartzen dela. *Skinhead*-ok arrazistak garela, hori burugabekeria galanta da. Kanpokoa zuri laguntzera etorri da; hortaz, zer zentzu du haren aurka egitea? Guztiok bat egin eta etsaiaren aurka joan behar dugu”, dio *Biru* kaskamotz bergararrak. Etsai zer edo nor kontsideratzen duten galdetuta, honakoa dio: “Kapitalismoa, telebista, komunikabideak, enpresariak, faxismoa, hipokritak…”




**MUSIKA** **Punkak izan zuen barne iraultzaren emaitza izan zen *oi!* musika. Horrekin batera, ska eta punka bera gustura entzuten dituzte *skinhead*-ek, Cock Sparrer, Cockney Rejects, Zakarrak, eta holako taldeen eskutik. Baina ibarrean bertan ere badugu horren eredurik: Ostiada Oi! edo Des-kontrol taldeak. Euskal Herriak, langile mugimenduak, eguneroko kontuek… sortzen dizkieten kezka eta amorrua abestiotan adierazten dute.**



**FUTBOLA** **Gauza baten, behintzat, topikoek arrazoia dute: kaskamotz gehienak futbolzaleak dira. Eneko Arantzeta elgetarra Euskal Hintxak taldekoa dugu, eta Reala animatzera joaten da, Ikurrinarekin eta beste ikur batzuekin. Hala ere, zera azpimarratzen dute: “Futbolak horrenbeste diru-eta mugitzea ez zaigu gustatzen. Eta *hooligan*-en irudiak ere kalte handia egiten digu. Geure koloreak defendatzera joaten gara estadioetara”.**



**JARRERA** ***Biru*** **gazte bergararrak Brigthon moda eta musika denda zabaldu berri du: “Nik ez dut inoren enplegatu izan nahi. Enpresariek langileak esplotatzen dituzte”, kexu da. Etorkizuna ilun ikusten du: “Gazteok oso egoera txarrean utzi gaituzte. Hemen potroak ipini behar dizkiogu lan duina eta baldintza onekoa eduki nahi badugu”.**




**MODA** **Ibarreko kaskamotzek badute euren gustuko jantziak non erosi Debagoienetik alde egin barik. Aitzindaria Mondragoeko Dr. Rude denda da (Zerkaosteta 4). Eta orain, Bergaran ere badago jantzi eta musika denda bat: Brigthon (Arruriaga kalea). Bietan ere kaskamotzek sarri erabiltzen dituzten arropak daude aukeran: *fly* txamarrak, botak, osagarriak…**

> *“Hau ez da moda, bizimodua baizik. Lagunak senitartekoak bezala dira niretako”*

> *“Burugabekeria galanta da ‘skinhead’-ak arrazistak garela esatea”*

**IRAULTZA BOKAZIOA**

Kaskamotz mugimendua borrokalaria da definizioz, protesta bokazioduna. Erresuma Batuan sortu zen, krisiak jotako langile zonetan. Gaurko *skinhead*-ak haien ezkortasunaren oinordeko dira: “Gazteok etorkizun beltza dugu. Guretako, langabezia terrorismoa da, eta langileon duintasunarengatik borrokatuko dugu”, azaltzen du *Biru*-k.

Aldarrikapenak, ez bakarrik politika, estetika eta ekonomia kontuetan; beste arlo batzuetan ere egiten dituzte kaskamotzek. Eneko kaskamotz elgetarra, adibidez, Euskal Hintxak futbolzale taldekoa da. Hark dioen moduan, “*skinhead*-on ideiak dira independentzia eta sozialismoa, eta horiek futbol estadioetara eramaten ditugu. Madrilen-eta istiluak izaten ditugu horregatik”.

Eta biolentziaz, zer diote? Horretaz ere argi egiten dute berba: “Doako biolentziaren aurka gaude. Baina erabili behar denean erabiliko dugu: hau da, gure burua edo laguna defendatzeko, etsaiak eraso egiten digunean”.

**INTERNET/ 'EUZKO-GOGOA'-REN BERTSIO DIGITALA AURKEZTUKO DUTE**

# Zaitegiren aldizkaria, Interneten

JOKIN ZAITEGI ARRASATEARRAK SORTUTAKO ALDIZKARIA IBIÑAGABEITIA PROIEKTUKO GUNEAN IZANGO DA

LEIRE KORTABARRIA

**Datorren astetik aurrera, Debagoieneko idazle eta euskaltzale handienetariko batek, Jokin Zaitegi arrasatearrak, sortutako *Euzko-Gogoa* Interneten kontsultatu ahal izango da. Foru Aldundiak eta Susa argitaletxeak berrargitaratuko dute 1950ean sortutako aldizkari hori.**

Jokin Zaitegi idazle eta kultura eragile mondragoetarrak Guatemalan, 1950ean, sortu zuen *Euzko-Gogoa* aldizkaria. 1959ra arte iraun zuen, hamar urtez. Datorren astetik aurrera, urte horietan kaleratu ziren zenbaki guztiak (44 izan ziren) Interneten kontsultatu ahal izango ditugu, *www.armiarma.com/andima* helbidean.

Ekimen horren aurkezpena astelehenean izango da, Donostiako Koldo Mitxelenan, 11:00etan.

Era horretan, Zaitegik orain dela mende erditik gora sortutako aldizkaria guztiz doan irakurtzeko modua izango da, Foru Aldundiaren eta Susa argitaletxearen eskutik. *Euzko-Gogoa* testu formatuan izango da (ia bederatzi milioi karaktere); eta, bestalde, baita faksimil formatuan ere (ia 3.700 orrialde, iruditan).



ARRASATE PRESS

**Jokin Zaitegi idazle arrasatearrak 1950ean sortu zuen *Euzko-Gogoa*, eta hamar urtez argitaratu zen.**

**XX. MENDEKO ALDIZKARIAK**

Aipatutako Internet helbidea Literatura Aldizkarien Gordailuarena da, Ibiñagabeitia Proiektua deritzona. Euskal literatura aldizkarien gordailu ahalik eta osoena antolatzea dute helburu, eta *Euzko-Gogoa* izango da moldatzen duten 32. aldizkaria. Bertan irakurgai dauden aldizkarien artean, zaharrenetariko bat ere bada; zaharrena 1945ean sortutako *Gernika* aldizkaria da.

Horiekin batera, XX. mendeko azken hamarkadetako euskal aldizkaririk esanguratsuenak ere batzen ditu Ibiñagabeitia Proiektuak: besteak beste, Bernardo Atxagak eta Koldo Izagirrek 1975ean sortutako *Ustela* aldizkaria. Gune horretan jasotako beste aldizkari batzuk honakoak dira: *Pott!, Oh! Euzkadi, Susa, Xaguxarra*… Eta, zaharragoen artean, *Olerti* (59an sortua), *Pamiela*…

**EUSKARA HUTSEZKO LEHENENGOA**

*Euzko-Gogoa*-ren berezitasunetako bat da 36ko gerra osteko euskara hutsezko lehen aldizkaria izan zela. Jokin Zaitegirekin batera, Orixe eta Andima Ibiñagabeitia izan ziren idazle oparoenak.

Aldizkari hark euskal literaturako izen handien lanak batu zituen: Salbatore Mitxelena, Nemesio Etxaniz, Jon Mirande, Antonio Maria Labaien, Jon Etxaide, Iratzeder… Eta idazle gazteagoen literatura lanak ere eman zituen argitara *Euzko-Gogoa*-k: Gabriel Aresti, Txillardegi, Bitoriano Gandiaga, Txomin Peillen, Juan San Martin, Manex Erdozaintzi-Etxart, Juan Mari Lekuona, eta beste hainbat idazleren lanak kaleratu zituen.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18
Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



Policlinica Gipuzkoa

Talde osoa emakumearen eskura

Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia ........ Antonio Estomba
Menopausia ........ Fernando Cristóbal
Endoskopia ginekologikoa ........ Alfredo Otalora
Laguntza bidezko ugalketa ........ Jose M. Gómez
Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak ........ Domingo Murgiondo
Obstetrizia ........ Miguel Gabarain
Psikosexualitatea ........ Maria José Ruiz
Nerabezaroko ginekologia ........ Fatima Azkue
Hezur dentsitometria ........ J. Rodríguez

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko otsailaren 14a

# Otsailak 14–21

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## MATRIKULAK

### ARRASATE

► **Erdu AEK euskaltegiak** hemendik eta ekainera arteko matrikula epea zabaldu du. Horretarako, deitu 943 77 03 69 zenbakira, otsailaren 20an, azken egunez.

### BERGARA

► **Akulu AEK euskaltegiak** hemendik eta ekainera arteko matrikula epea zabaldu du. Otsailaren 20ra arte izango duzue horretarako aukera. Deitu 943 76 05 18 zenbakira.

### DEBAGOIENA

► **Goieskolak, Debagoieneko euskal eskola publikoak,** Eskoriatza-ko Luis Ezeiza (haur hezkuntza) eta Aretxabaletako Kurtzebarri (bigarren hezkuntza) ikastetxeetarako matrikula epea du zabalik, bihar arte, zapatua. Argibideetarako edo izena emateko, 943 79 57 40 edo 943 71 49 38 telefonoetara.

### OÑATI

► **Txantxiku ikastolan** matrikula egiteko epea gaur, egubakoitza, bukatuko da. Horretarako, deitu 943 78 12 04 telefono zenbakira.

► **Elkar Hezi ikastetxeak** gaur, egubakoitza, itxiko du matrikula egiteko epea. Argibide gehiago gura izanez gero, deitu 943 78 05 11 (haur eta lehen hezkuntza) edo 943 78 28 70 (derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergoa) telefonoetara.

► **Oñatiko euskal eskola publikoan** aurrematrikula egiteko epea zabalik dago martxoaren 15era arte. Argibideetarako, deitu 943 78 07 64 (Haur eta lehen hezkuntza) edo 943 78 12 68 (Derrigorrezko bigarren hezkuntza) telefonoetara.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Antzuolako ohitura zaharren gaineko** hitzaldia egingo du Iñigo Ramirez de Okarizek eguenean, hilaren 20an, Olaranen, 19:00etan.

### ARETXABALETA

► **Gernika Deialdiarekin bat egiten duen herri plataforma** aurkeztuko dute bihar, zapatua, udaletxean, 12:30ean.

### ARRASATE

► **Bolibiako Ayllu komunitate inkaikoaren gaineko** hitzaldia eta film labur emanaldia izango dira gaur, egubakoitza, Monterronen, 19:00etan. *Mondragoetarrok* taldeak antolatu du.

► **Nagusilan pertsona nagusiei laguntzeko erakundearen** aurkezpen ekitaldia izango da otsailaren 19an, eguaztena, Saiolanen egoitzan (Zerrajera), 16:00etan.

► **Arizmendi ikastolako Haur Hezkuntzako** langileendako formakuntza ikastaroak antolatu dituzte. Otsailaren 20an, eguena, lehen sorospenen gaineko jardunaldia izango da, Ferixalekuko seigarren solairuan, 16:45ean.

### BERGARA

► **Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketako** sari banaketa ekitaldia izango da gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 19:30ean.

### ESKORIATZA

► **Gernika Deialdiarekin bat egiten duen herri taldea** aurkeztuko dute bihar, zapatua, herriko plazan, 12:00etan.

► **Liburutegiaren inaugurazioa** eta udalaren Internet-gunearen aurkezpena izango dira datorren egubakoitzean, otsailak 21, San Pedron (Luis Ezeiza ikastetxeko haur hezkuntzako eraikinean), 18:30ean.

### OÑATI

► **Ingurumen Astea** antolatu du Natura Eskolak. Horren barne, hiru hitzaldi antolatu dituzte. Bata, bisoi europarraren ingurukoa, astelehenean; martitzenean, *Pozoiaren eragina naturan* izenekoa; eta eguaztenean, *Garapen jasangarria ote?* izenekoa. Hirurak Natura Eskolan izango dira, 19:00etan. Bestalde, eguenean, zineklub saioan, *Nómadas del viento* hegaztien inguruko filma izango da, Santa Marinan. Azkenik, datorren egubakoitzean, hilaren 21an, Oihana Auhenka delako ikuskizuna izango da, Zubikoa kiroldegian, 22:30ean.

► **Oñatiko Herri Ekimenaren aurkezpena** izango da bihar, zapatua, herriko plazan, 12:30ean. Hainbat oñatiarren hitzaldiak izango dira. Abertzale eta ezkertiar diren oñatiar guztiak daude parte hartzera gonbidatuta.

► **Aratuste herrikoian,** martxoaren 1ean, dantza egiteko aukera dute oñatiar guztiek. Entseguak martitzenero, 20:00etan, eta zapaturo, 12:00etan, izango dira, Oñatz dantza taldearen egoitzan, Errekalden.

► **Asteburuetako eski irteeretarako** izena emateko aukera dago. Baqueira Beret-era joango dira otsailaren 21etik 23rako asteburuan, eta Luz Ardiden-era, martxoaren 14tik 16rakoan. Jo Aloña Mendi tabernara martitzen edo eguaztenetan.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **Aurtengo kintoen** dantza emanaldia izango da etzi, domeka, herriko plazan, 19:00etan.

### BERGARA

► **Ekon, Jousilouli eta Anger** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Censored, Tribes of Cain eta Impure** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Brigada Criminal eta Basque Country Pharaons** taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Maria Jesus Ugalde** sopranoaren eta Aitor Olea organo jotzailearen emanaldia izango da bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

► **Gluecifer eta Sol Lagarto** taldeen emanaldia izango da eguenean, otsailak 20, Jam aretoan, 21:00etan.

► **Techno jaialdia** izango da datorren egubakoitzean, hilak 21, Jam aretoan, 00:00etan.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► ***Espacios en construcción* erakusketa** du zabalik Juanjo Altuna Akizu margolariak Maala kaleko Arregi Enmarkazioak dendan, otsailaren 17ra arte.

► **Felix Ayala margolariak** bere lan berrien erakusketa du zabalik Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Hilaren 23ra arte ikusi ahal izango duzue, astegunetan 18:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan, gainera, 12:00-14:00.

### ESKORIATZA

► ***Drogak: gizarte-gaia* erakusketa** izango da etzira arte, domeka, kultura



► ANTZERKIA

### YLLANA TALDEA IBARRERA DATOR BERRIRO, ‘SPINGO’ LANAREKIN

*666* eta *Hipo* antzezlanekin arrakasta handia izan zuen Debagoienean Madrilgo Yllana taldeak. Horietan, ondo dastatu ahal izan genuen talde horren umorea ulertzeko modua: umore garratza, beltza batzuetan, esan nahi duena argi eta garbi esaten duena, eta gure gizartearen tabuez barre egiten duena. *Spingo* euren lan berriak helburu bakarra du: ondo pasaraztea. Musika onenaren erritmora, eta zentzumenei zuzendutako oso umore bisualaren bidez, Yllanak dantzan jarriko du publikoa, energia positiboa agertokitik eserlekura bidalita. Hitzen beharrik ez du Yllanak mundu magiko bat sortzeko, umore beltzez eta erotismoz betetako egoera harrigarriz beteta.

**Non:** Arrasateko Amaia antzokian. **Noiz:** etzi, domeka. **Ordua:** 19:30ean.



ARRASATE ORTOPEDIA
Maalako Errabala 8
Tel.: 943 77 20 78

Osakidetzarekin eta Lagun Arorekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez
**Pedikura ortopedikoa eta oin-osatzea**

**Oinaren azterketak:** tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.
**Umeak:** hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.
**Materia bigunen erabilera:** oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.
**CAD/CAM sistema:** Plantillen fabrikazioan (berehala ematen dira).
**Neurrira eginiko oinetakoak.**
**AEBetatik inportatua.**

Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua




**OIN MOTAK**
**1.- Oin normalaren itxura podografikoa: istmoaren zabalera, erdiko puntuan (27 mm), aurreko taloiaren zabaleraren (82 mm) herena da.**
**2.- Oin kaboaren fotopodograma : istmoaren zabalera (10 mm) aurreko taloiaren 1/8ra txikitzen da.**
**3.- Lehen graduko oin lauaren fotopodograma: istmoaren zabalera, erdiko puntuan (43 mm), aurreko taloiaren (84 mm) erdiaren baliokide da.**
**4.- A: Bigarren graduko oin lau ebolutiboa. Taloiak itxura zabala eta potoloa du. B: Bigarren graduko oin lau egonkortua. Kalkaneoak itxura fina du.**



## "AMETS EGITEKO" IRUDIEN ERAKUSKETA

Joseba Arregi *Azpilleta* preso oñatiarrak gartzelan margotutako koadroen erakusketa dago Oñatiko kultura etxean, hilaren 23ra arte. Astegunetan, 18:30etik 20:30era, eta zapatu eta domekan, ordutegi horrez gain, 12:00etatik 14:00etara izango duzue ikusteko aukera.

etxean, 18:00etatik 20:00etara, egunero, eta, horrez gain, 13:00etatik 14:00etara ere bai, domekan.

### OÑATI

► **Iñaki Jauregialtzoren buztinezko eskulturen erakusketa** bisitatzeko aukera duzue Barue dekorazio dendan (Santa Marina, 4), hil osoan zehar.

## IKASTAROAK

### OÑATI

► **Emakumeei zuzendutako informatika ikastaroak** izango dira otsailaren 17tik aurrera. 25-26 urte arteko emakumeek izango dute parte hartzeko aukera. Argibideetarako, deitu 943 78 21 50 telefonora, 09:00-13:00.

## JAIAK

### ELGETA

► **Festa berezia** antolatu du Elgetako Udalak San Valentin egunerako, hau da, gaurko, egubakoitza. Auditorioan izango da, 21:00etan. Mahaiak eta aulkiak ipiniko dituzte; edari zerbitzua ere izango da, eta dantzarako musika ipiniko dute. Sarrera doan da, elgetar guztiondako.

### OÑATI

► **Errekalde Herri Eskolaren Hamabostaldi kulturala** etzi bukatuko da: Kulki taldeak herri kirolen eta baserriko lanen inguruko erakustaldia egingo du, herriko plazan, 12:00etan. Eguraldi txarra izango balitz, kiroldegian izango da.

## ANTZERKIA

### ELORRIO

► ***Spingo* antzerki lana** eskainiko du Yllana taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► ***4L-mentos* antzerki lana** jokatuko du Mò-house taldeak datorren egubakoitzean, hilak 21, Unibertsitateko aretoan, 22:30ean.

## LEHIAKETAK

### DEBAGOIENA

► **Bergarako Mendekoste jaietako** kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak. Edozeinek har dezake parte. Derrigorrezko testua honakoa izango da: *Pentekoste jaiak Bergaran. 2003.* Martxoaren 28a izango da parte hartzeko azken eguna.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **AMAIA ANTZOKIA**

***La cuadrilla***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***The ring: la señal***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 19:30.

***El gran dictador***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.

***La ciénaga***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***El caballero negro***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Nómadas del viento***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Kamchatka***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Riesgo extremo***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Ocho millas***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Hable con ella***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Solaris***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Al sur de Granada***
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 17:00.

***The ring: la señal***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***The good girl***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Los lunes al sol***
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 19:45, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Ocho millas***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Amigas a la fuerza***
Egunero: 17:15, 20:00.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 23:00.

***The ring: la señal***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***La chica de París***
Egubakoitzetik domekara: 22:45.

***El planeta del tesoro***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***El pianista***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Oscura seducción***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45.
Zapatua eta domeka: 22:45.

***Hable con ella***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Dolls***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***El jardín de la alegría***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Un hombre sin pasado***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.

***A propósito de Schmidt***
Egunero: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***La fidelidad***
Egunero: 17:30, 21:00.

***Frida***
Egunero: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Ciudad de Dios***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ **STER ZINEMAK**

***El pianista***
Egubakoitza eta zapatua: 20:35, 23:55.
Domeka: 20:35.

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza eta zapatua: 17:35, 20:05, 22:35, 01:05.
Domeka: 17:35, 20:05, 22:35.

***Atrápame si puedes***
Egubakoitza: 19:30, 22:20, 01:10.
Zapatua: 16:35, 19:30, 22:20, 01:10.
Domeka: 16:35, 19:30, 22:20.

***Spy kids 2, la isla de los sueños perdidos***
Egubakoitza: 18:20.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:20.

***Seguridad nacional***
Egubakoitza: 18:15, 20:10, 22:05, 00:00.
Zapatua: 16:20, 18:15, 20:10, 22:05, 00:00.
Domeka: 16:20, 18:15, 20:10, 22:05.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egunero: 17:25.

***Solaris***
Egubakoitza: 18:10, 20:15, 22:20, 00:25.
Zapatua: 16:05, 18:10, 20:15, 22:20, 00:25.
Domeka: 16:05, 18:10, 20:15, 22:20.

***Barridos por la marea***
Egubakoitza: 18:25, 20:20, 22:15, 00:10.
Zapatua: 16:30, 18:25, 20:20, 22:15, 00:10.
Domeka: 16:30, 18:25, 20:20, 22:15.

***Ocho millas***
Egubakoitza: 18:25, 20:40, 22:55, 01:10.
Zapatua: 16:10, 18:25, 20:40, 22:55, 01:10.
Domeka: 16:10, 18:25, 20:40, 22:55.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza: 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

***Riesgo extremo***
Egubakoitza eta zapatua: 20:25, 22:25, 00:30.
Domeka: 20:25, 22:25.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:45, 21:30, 00:15.
Domeka: 11:40, 15:55, 18:45, 21:30.

***Frida***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:45, 20:00, 22:20, 00:40.
Domeka: 11:50, 15:30, 17:45, 20:00, 22:20.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 19:30, 23:15.
Domeka: 11:30, 16:10, 19:30.

***The good girl***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 17:35, 19:40, 21:40, 23:40.
Domeka: 11:45, 15:40, 17:35, 19:40, 21:40.

***Otra terapia peligrosa***
Egubakoitza: 16:10, 18:20, 20:25, 00:40.
Zapatua: 00:40.
Domeka: 11:50, 16:10, 22:25.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15.
Domeka: 12:00, 16:15, 18:15.

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:15, 21:50, 00:20.
Domeka: 11:40, 16:30, 19:15, 21:50.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka: 11:35, 16:30.

***Ocho millas***
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 18:00, 20:10, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:00, 15:50, 18:00, 20:10, 22:30.

***Solaris***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:50, 19:50, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:10, 15:45, 17:50, 19:50, 22:00.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.
